

IRAKASKUNTZA GIDA

GRADU AMAIERAKO LANA

**IKASTURTEA:
2013-2014**

TITULAZIOA: PSIKOLOGIAKO GRADUA

IKASTEGIA: PSIKOLOGIA FAKULTATEA
IKASTURTEA: 201' -201(

IRAKASKUNTZA GIDA

1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO DATUAK

IZENA: Gradu Amaierako Lana (GRAL)

KODEA: 25104

IKASTURTEA: 2013-2014

IRAKASGAI MOTA = Y

(D=adarreko oinarrizkoa; S=beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y=gradu amaierako proiektua; O=nahitaezkoa edo P=hautazkoa)

ECTS kredituak: 6

MAILA: 4º

LAUHILEKOA: 2º

Aurretiko baldintzak: GRALaren aurre-matrikula egiteko, ezinbestekoa da tituluko irakasgai guztietan matrikulatu izatea eta gehienera jota 1., 2. eta 3. mailetako 18 kreditu izatea gainditu gabe.

Aholkuak:

2. IRAKASLE TUTOREA

Ikasle bakoitzarentzako irakasle tutorea GRALaren batzordeak esleituko du, ikasleak lan honen aurrematrikula egin ondoren.

IZEN ABIZENAK:

IKASTEGIA/SAILA:

ARLOA:

BULEGO ZK:

POSTA:

TEL:

WEB HELBIDEA:

3. IRAKASGAIAREN GAITASUN ZEHATZAK ETA ZEHARKAKOAK

Gaitasunaren Zk.:	Gaitasunak
1	Psikologiaren eredu teorikoak ezagutzea hautatutako gaien, eta haren ekarpenak eta mugak kritikoki balioesteko gai izatea.
2	Gizakiaren substratu psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatzeko eta sartzeko gai izatea.
3	Ebaluazioa egiteko datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko gai izatea, datu kuantitatiboak edota kualitatiboak aztertzeko gai izatea, eta landutako gaiaren emaitzak interpretatzeko eta txosten tekniko bat egiteko gai izatea, ahoz edota idatziz aurkezteko.

4	Ikergaiaren testuinguruan agertzen diren banakako, taldeko eta taldeen arteko aldeak, arazoak eta beharrak identifikatzeko gai izatea.
5	Landutako gaiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
6	Psikologoaren jarduera profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta deontologia-kodea aplikatzeko gai izatea.
7	Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
8	Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoa baloratuz.
9	Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

4. GRALAKO PROZESUA

1. Ikasleek GRALeko aurre-matrikula egitea.
2. GRALaren Batzordeak tutorea eta gaia esleitzea.
3. Ikaslea tutorearekin harremanetan jartzea, prozesua abiatzeko.
4. Ikasleak tutorea edota GRAL mota edo gaia aldatzeko eska diezaioke GRALaren Batzordeari.
5. Batzordeak ikaslearen eskaria ebatzea.
6. Ikasleak GRALaren behin betiko aurre-matrikula egitea.
7. Ikasleak, Graduak gainerako irakasgaiak gainditu ondoren, GRALeko matrikula egitea.
8. Ikasleak GRALa defendatzeko eskaria egitea.
9. Tutoreak oniritzia ematea defentsa-eskariari.
10. Ikasleak GRALa aurkeztea eta defendatzea, eta dagokion ebaluazioa egitea.

5. GRADU AMAIERAKO LANA

Arau orokorrak.

- Gradu Amaierako Lanaren txostenak 15-20 folio izango ditu gehienez (izenburua, laburpena, erreferentziak, irudiak, taulak, eranskinak eta ilustrazioak barne). DIN A4 formatuan idatziko da, 2,5 cm-ko marjinekin eta 1,5eko lerro-tarteekin, eta letraren tamaina 12koa izango da. Ahal izanez gero, alde bietatik inprimatuko da.
- Lehen orrialdean, lanaren izenburua, ikaslearen izen-deiturak eta irakasle tutorearen izen-deiturak idatziko dira. Aurkibideak lanaren atal guztiak jasoko ditu, eta irudi eta taula guztiak. Hasteko, laburpen bat egingo da, 200 hitzekoa gehien jota, eta lana garatuko da ondoren, kontuan izanik jarraian modalitate bakoitzerako aipatzen diren atalak:

5.1. I. modalitatea

PRACTICUMARI LOTUTAKO LANA: PRACTICUMEAN EGINIKO JARDUEREN ETA ERABILITAKO TEKNIKEN OINARRI TEORIKOA ETA METODOLOGIKOA.

1. Atarikoa. Atal honetan, Practicumean eginiko jarduerak aurkezteko behar den informazioa jasoko da, dagokion informazio bibliografikoa barne.
2. Jardueraren garapena. Puntu honetan, Practicumeko jarduera bakoitza xehetasunez garatzeko egileak egokitzat hartzen dituen atalak bilduko dira.
3. Materiala eta metodoak. Practicumaren garapenean erabilitako teknika eta/edo metodologia bakoitzaren deskribapen xehea.
4. Ondorioak.
5. Bibliografia.
6. Eranskinak (aukerakoa).

5.2. II. modalitatea

PRACTICUMARI LOTUTAKO LANA: PRACTICUMEAN EGINIKO JARDUEREN BALORAZIO KRITIKOA, HOBEKUNTZA POSIBLEAK PROPOSATUZ ETA/EDO LANDUTAKO ARLORAKO INTERBENTZIO PROGRAMA BAT DISEINATUZ.

1. Atarikoa. Atal honetan, Practicumean eginiko jarduerak aurkezteko behar den informazioa bilduko da, dagokion informazio bibliografikoa barne.
2. Jardueraren garapena. Practicumean eginiko jarduerak aurkeztuko dira.
3. Materiala eta metodoak. Practicumaren garapenean erabilitako teknika eta/edo metodologiaren deskribapena.
4. Ondorioak eta balorazio kritikoa. Atal hau sakon garatuko da modalitate honetan, aurretik aipatutako jardueren eta metodologiaren balorazio kritikoaren bitartez.
5. Proposamena. Hobekuntza posibleak proposa daitezke, eta interbentzio-programa bat, aztergai hartu den arlorako.
6. Bibliografia.
7. Eranskinak (aukerakoa).

5.3. III. modalitatea

PRACTICUMARI LOTUTAKO LANA: EKINTZAILTZA PROIEKTUA.

1. Proiektuaren deskribapena. Atal honetan jasoko dira: proiektuaren aurrekariak, ekintzailtza-proiektuak planteatzen duen proposamen zehatza eta egitasmoaren hartzaileak.
2. Helburuak. Proiektuaren helburu orokorrak eta espezifikoak.
3. Jarduerak. Aurretik aipatutako helburuak betetzeko proposatzen den jarduera bakoitzaren deskribapen xehea.
4. Eztabaida. Proiektuaren balorazio kritikoa, berrikuntzarako duen gaitasuna aztertuta, bideragarritasuna eta gizarte-interesa.
5. Bibliografia.
6. Eranskinak (aukerakoa).

5.4. IV. modalitatea

PRACTICUMAREKIN LOTURARIK EZ DUEN LANA: IKERKUNTZA, GARAPENA ETA/EDO BERRIKUNTZA PROIEKTUA.

1. Ikerkuntza-proiektuaren deskribapena. Atal honetan jasoko dira: ikerkuntza-proiektuaren aurrekari bibliografikoak, gaiaren gaur egungo egoera, proposatzen diren helburuak eta lan-hipotesiak.
2. Interes zientifikoa eta gizarte-interesa.
3. Metodologia. Hau da: diseinu esperimental, aztergai den laginaren deskribapena, emaitzak lortzeko erabilitako teknika eta tresna bakoitzaren deskribapen xehea, eta emaitzen analisi estatistikoan erabilitako prozedura. Prozedura guztiek bat etorri behar dute UPV/EHUko etika-batzordeak ezarritako arauekin (<http://www.ikerkuntza.ehu.es/p273-shetichm/es/>).
4. Lorturiko emaitzak (edo lortzea espero direnak*).
5. Ondorioak (edo lan-egitasmoaren kronograma*).
6. Bibliografia.
7. Eranskinak (aukerakoa)

*Hainbat arrazoi medio Gradu Amaierako Lanarentzat aurreikusitako denboran emaitzarik eman ezin duten proiektuen kasuan. Irakasle tutoreak egiaztatua.

5.5. V. modalitatea

PRACTICUMAREKIN LOTURARIK EZ DUEN LANA: GAI JAKIN BATI BURUZKO BERRIKUSPEN ETA EGUNERATZE TEORIKOA ETA/EDO METODOLOGIKOA.

1. Atarikoa. Atal honetan, berrikuspen teoriko eta/edo metodologikorako aukeratutako gaia irakurleari aurkezteko behar den informazioa jasoko da.
2. Gaiaren garapena. Proposatutako gaia garatzeko egileak beharrezkotzat hartzen dituen atalak landuko dira.
3. Ondorioak.
4. Bibliografia.
5. Eranskinak (aukerakoa).

- Proiektuaren txostenak kontuan hartu behar ditu APA erakundearen argitalpen-arauak (Publication Manual of the American Psychological Association, 5. edo 6. edizioa). Hona hemen arau horietako batzuk.

Testuan aipu bibliografikoak egitean, egilearen abizena eta argitalpen-urtea adierazi behar dira (parentesien artean eta komaz bereziak). Egilea narrazioan aipatzen denean, urtea bakarrik idatziko da parentesien artean. Bi egile direnean, bi-biak aipatu behar dira beti. Lanak bi egile baino gehiago eta sei baino gutxiago dituenetan, lehenengo aldian denak idatziko dira; ondorengo aipuetan, aldiz, lehen egilearen abizena gehi "et al." eta urtea, beste abizen berdin bat eta urte berekoa dagoenean izan ezik (aipamen osoa idatziko da kasu horretan). Sei egile baino gehiago daudenean, lehenengoa gehi "et al." idatziko da, eta nahasterik izanez gero, beste egileak gehitu, ondo identifikatuta gelditzeko moduan. Edonola ere, zerrenda bibliografikoan, den-denak idatziko dira. Parentesien artean egile bat baino gehiago idatzi behar direnean, alfabetikoki ordenatuko dira. Egile beraren edo berberen lanak aipatzeko, data berekoak, a, b, c... letrak gehitu behar zaizkio urteari, urtea errepikatuta. Erreferentzia bibliografikoak alfabetikoki ordenatuko dira amaieran, honako arau hauen arabera:

a) Liburuak: Egilea (abizena, koma, izenaren inzialak eta puntua; egile bat baino gehiago izanez gero, komaz bereziko dira, eta "&" idatziko da azkenaren aurretik); urtea (parentesien artean) eta puntua; izenburu osoa, letra etzanean, eta puntua; hiria, bi puntu eta argitaletxea. Adibidez: Lezak, M., Howieson, D. B., & Loring, D. W. (2004). *Neuropsychological Assessment* (4th ed.). New York: Oxford University Press.

b) Liburu kolektiboan edo akten kapituluak: Egilea(k); urtea; aipatzen den lanaren izenburua eta, ondoren, "In" letren atzetik, zuzendaria edo zuzendariak, editoreak edo konpilatzaileak (izenaren inzialak eta abizena), gehi "Ed.", parentesien artean, "s" gehituta pluralaren kasuan; liburuaren izena, letra etzanean, eta aipatutako kapituluaren orrikatzea parentesien artean; hiria eta argitaletxea. Adibidez: de Wit, H., & Mitchell, S. H. (2009). Drug Effects on Delay Discounting. In G. J. Madden & W. K. Bickel (Eds.), *Impulsivity: The Behavioral and Neurological Science of Discounting* (pp. 213-241). Washington, DC: American Psychological Association.

c) Aldizkariak: Egilea(k); urtea; artikulua izenburua; aldizkariaren izenburu osoa, letra etzanean; bol., letra etzanean; zk., parentesien artean, bolumenetik bereizi gabe orrikatzea zenbakika denean, eta hasierako eta amaierako orrialdeak. Adibidez: Byrne, B. M. (2008). Testing for multigroup equivalence of a measuring instrument: A walk through the process. *Psicothema*, 20, 872-882.

Aipatzen den testuaren (liburua, kapitulua edo artikulua) bertsio originala ingelesez idatzita ez dagoenean, izenburu originala idatziko da, eta, kortxeteen artean, ingelesezko itzulpena. Beste edozein zalantza argitzeko, kontsultatu APAren eskuliburua (2001, 2010).

- Irudiak eta taulak testuaren gorputzean txerta daitezke, egoki irizitako lekuan, testuaren argudioak sendotzeko, edo amaieran ere erants daitezke, Gradu Amaierako Lanean aipatzen diren ordenan. Irudi eta taula guztiak testuaren gorputzean aipatu behar dira. Bestetik, zenbakituta egon behar dute, dagokion hurrenkeran, eta izenburu labur eta argi bat eduki behar dute: irudietan, izenburua azpian jarriko da; taulen kasuan, goialdeko ezkerreko marjinan. Irudiak egoki ulertzeko gehitzen den informazioa epigrafe modura idatziko da irudiaren izenburuaren azpian; taulen kasuan, ohar gisa agertuko da, taularen behealdean.

6. AURKEZTEA ETA DEFENDATZEA

Gradu Amaierako Lana idatziz aurkeztuko da aurretik azaldutako arau eta irizpideen arabera, eta ahoz defendatuko du ikasleak, hiru irakaslek osatutako epaimahai baten aurrean.

Gradu Amaierako Lana amaitzean, haren defentsarako eskaria egingo du ikasleak, GAUR aplikazioaren bidez. Defentsa ikastegiak proposatutako egunetako batean egingo du, EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan. Gainera, Gradu Amaierako Lanaren ale bat aurkeztuko du paperean eta beste bat CD euskarrian, ikastegiko idazkaritzan, epaimahaiari emateko eta artxibatzeko.

Gradu Amaierako Lanaren defentsarako, poster bat prestatuko du ikasleak, bere lanaren helburu, metodologia, eduki eta ondorioekin. Epaimahai bakoitzak deialdi bakoitzean ebaluatu behar dituen posterrak aztertuko ditu. Ondoren, ikasle bakoitzak bere posterraren aurkezpen laburra egingo du, 5 minutukoa gutxi gorabehera, eta epaimahaiak egokitzat jotzen badu, galderak, azalpenak, iruzkinak eta iradokizunak egingo ditu.

7. GRALEKO EBALUAZIO

Gradu Amaierako Lanaren amaierako ebaluazioan, kontuan hartuko dira aurkeztutako lan idatzia (% 60) eta haren ahozko defentsa (% 40). Honako rubrika hauetan izandako lorpen mailan oinarrituz egingo da ebaluazioa:

LAN-PROZESUAN ETA AZKEN TXOSTENEAN, HAIN ZUZEN

- 1.- Helburuak jarri, lana planifikatu, eta denboran egoki garatzen du.
- 2.- Gai da informazio egokia bilatu, lortu eta hautatzeko, espezializatutako informazio iturrietatik abiatuta.
- 3.- Lanak dituen elementuak era ordenatuan aurkezten ditu, ideiak argitasunez adieraziz, eta testua irakurri eta ulertzea ahalbidetzen duen hizkera erabiliz.
- 4.- Lanak aztergai duen objektua argitasunez identifikatu, definitu eta dagokion testuinguruan jartzen du, graduko prestakuntzan lortutako elementuak erabiliz eta betiere psikologiako jakintza arlo desberdinetatik eginda.
- 5.- Metodologia egokia erabiltzen du proposatutako helburuei begira, eta zuzen aurkezten ditu emaitzak.
- 6.- Balorazio kritikoa egiten du aurkeztutako ereduaren gainean, baita egindako jardueren edota lanean lortutako emaitzen gainean ere, eta ideia orijinalak, praktikoak eta berriztagarriak proposatzen ditu.

POSTERRAREN PRESTAKUNTZA

- 1.- Posterra egoki eta egituratuta aurkezten da, GALAren elementu nagusiak jasoz.
- 2.- Egokiak izan eta lana ongi ulertzea ahalbidetzen duten grafikoak erabili dira.
- 3.- Konklusioak alderdi nagusiak jasotzen ditu. (behar izanez gero)
- 4.- Aurkezpena orijinala eta sortzailea da. (behar izanez gero)

AZALPENA ETA DEFENTSA

- 5.- Lanak dituen elementuak era ordenatuan aurkezten ditu, ideiak argi eta garbi adieraziz, eta hizkera egokia erabiliz.
- 6.- Ondo laburtzen du informazio garrantzitsuena, lanaren azalpena ezarritako denborara egokituz.
- 7.- Ongi ulertu eta modu egokian erantzuten die epaimahaiaren galderari.

Ikasleak bere azalpenak eman ondoren, eta tutoreak egindako txostena ikusi ondoren, epaimahaiak dagokion nota jarriko du.

Tituluko gainerako irakasgaietan bezalaxe, GRALeko kalifikazioak honako hauek izango dira: gutxiegi (0-4,9), nahikoa (5-6,9), oso ongi (7-8,9) eta bikain (9-10).

GRALaren Batzordeak ohorezko matrikula eman ahal izango die 9ko kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, epaimahaiak hala proposatu ondoren.

Ikasleak gutxiegi atera badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko. Tutoreari txosten horren kopia bat bidaliko zaio.

8. DOKUMENTAZIOA /BIBLIOGRAFÍA

American Psychological Association (2010). *Publication manual of the American Psychological Association* (6th ed.). Washington: American Psychological Association.

Normativa sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en la Universidad del País Vasco (BOPV nº 119. 19-6-2012).

Reglamento sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en Psicología (UPV/EHU). (Acuerdos de Junta de Facultad 27-6-2012).

9. TUTORETZEN ORDUTEGIA

Tutoretzen ordutegira sartzeko:

- Moodle plataforma
- GAUR programatutako tutoretzentzat